

'Lasa-Zabala auzia' Epaia

(aurreko orrialdetik dator)

guztiak: «Pertsona honek ETaren mehatxutik babesteko deklaratu duela dioen hipotesia sineskaitza da guztiz, kasu honetan gezurra esateak aurkakoa ekarriko liokeela baitirudi, nahiz eta Guardia Zibila inplikatu duen». Epaimahaiak dienez, gainera, Txofo kontrabandagatik zigortua egoteak ere ez dio sinesgarritasuna kentzen.

Angel Lopez Carrillo • Ustez Julen Elgorriagaren konfiantzako gizona zen polizia honi ere sinesgarritasun osoa ematen dio epaimahaiak, «instrukzioan eta ahozko epaiketaren egindako deklarazio guztietan bertsio bera eman duelako». Horrez gain, Lopez Carrillok polizia gisa lanean ari zela jasotako dominak gogoratzen ditu, eta esaten du horrek bidea emango liokeela Elgorriagaren agindu zuzenetara egoteko. Epaimahaiaren arabera, Lopez Carrilloren testigantzak izan ditzakeen akatsak ordutik pasatuko denboraren ondorio izan daitezke. «Gainera, Miguelizek eta Carrillok, euren artean inolako harremanik ez badute ere, bat egiten dute euren kontaktuen oinarrian, eta gainerako lekukoek ez dute lortu haiek esandakoari balio kentzea».

Atzera egin duten lekukoak • Epaiak banan-banan aipatzen ditu instrukzioaren egindako adierazpenetan atzera egin duten hainbat lekuko. Kasu gehienetan ez ditu aintzat hartzen ahozko epaiketaren egindako lekukotzak.

- **Julio Vazquez Ayra**: «Vazquez Ayra epaiketaren esan du Lopez Carrillok eskatuta egin zuela bere deklarazioa, eta hark esan ziola zer deklaratu behar zuen. Baina Vazquez Ayra denbora asko izan zuen horri buruz pentsatzeko, eta instrukzioan Lopez Carrillok berak baino zehaztasun gehiago eman zituen gau horren inguruan».

- **Rafael Barranco**: Barranco deklaratu zuen Jose Luis Lobo *El Mundo* egunkariko kazetariak mehatxatu egin zuela kasu honetan deklaratzeko, baina epaimahaiak ez dio sinesgarritasunik ematen: «Lobok lekuko gisa deklaratu du, eta ez dirudi inor mehatxatu zuenik».

- **Jose Maria Velazquez Soriano**: «1959 guardia zibil ohiak atzera egin du bere deklarazio guztietan, baina oraindik ere mantentzen du Galindok bildu egin zituela errefuxiatuen kontrako infor-



Epaimahaia osatzen zutenak: Carlos Cezon, Siro Garcia eta Manuela Fernandez, epaiketako saio batean.



ANGEL DIAZ / EFE

Jorge Argote abokatu eta auzipetua, Entzutegira iristen atzo.

mazio bilketari buruz hitz egiteko. Lekuko honek, baina, ez zuen beharrik puntu honetan gezurrik esateko, gainerako guztian jada atzera egin baitzuen», dio epaiak, gogoratuz gainerako guardia zibilek bilera hori ukatu egin dutela.

CESIDeko paperak • Zantzu frogara gisa hartzen ditu epaiak Juan Alberto Perotek aurkeztutako jatorrizko agiriak. «Agiri horietan Iparraldean ekitearen aukeraz hitz egiten da, egokiena bahiketa bidezko desagertzea dela adieraziz», gogorarazten du

Bayoren deklarazioa

■ ■ ■ «Epaimahaiak ondorioztatu du sinesgarriagoak direla Bayok 1997ko udan eginiko deklarazioak, nahiz eta haietan ere ez zuen egia osoa esaten»

GAL

■ ■ ■ «Ez da frogatu ekintza hauek egiteko erabili zen egitura GALi egotzitako beste ekintzaren batean erabili zenik»

epaiak, Galdindok eta Elgorriagak hartutako erabakia horretan oinarrituz.

Delituak

► Akusatuei leporatutako delituak banan-banan aztertuz amaitzen du epaimahaiak atzo kaleratutako epaia.

Talde armatuko kide izatea • Fiskalak hamarna urte eskatzen zituen delitu honegatik Elgorriaga eta Galindorentzat, eta zortzina Vaquero, Dorado eta Bayorentzat.

Epaimahaiak, baina, ez du horretarako arrazoirik ikusi. «Ez da frogatu ekintza hauek egiteko erabili zen egitura —Donostiako komandantziako Informazio Zerbitzuko zati batek osatutako egitura— GALi egotzitako beste ekintzaren batean erabili zenik», dio epaiak horren inguruan. Epaimahaiaren arabera, Galindok eta Elgorriagak hartu zuten Lasa eta Zabala bahitzeko erabakia euren kabuz.

Legez kanpoko atxiloketa

• Aurretik aipatu bezala, epaimahaiak uste du puntu hau frogatua geratu dela, eta hainbatek preskripzioa eskatu badute ere ez du eskaera hori onartu. «Hainbat delitu batera ematen direnez, eta delitu garrantzitsuena preskribitu ez denez, delitu bakar bat bezala aztertu behar da». Gainera, delitu honetan zigorra ezartzeko bi larrigarri gehitu ditu epaimahaiak: kargu publikoaz baliatzearena eta alebosia.

Lesioak edo torturak

• Epaiak, forentseen deklarazioak hizpide hartuta, zauriak zehazteko zailtasuna aipatzen du. Haren arabera, buruko zauriak tiroen eraginez egindakoak izan daitezke eta azkazalak denboraren eraginez erortzea ere posible da. Gorpuen inguruan azaldutako bendak zantzuak badirela dio, baina ez delitu hau leporatzeko froga nahikoa.

Hilketa • Gertakarien kontakizunean esaten duen bezala, Lasa eta Zabala hiltzeko erabakia bost zigortuek hartu zituela dio, nahiz eta egilea bera ezin zehaztu daitekeela gaineratu. Epaiaren arabera, gainera, logikoa da bahiketa agindu eta egin duenak egitea hilketa ere.

Babesa ematea eta diru publikoen erabilera

• Rafael Verari leporatzen zizkieten akusazioek eta fiskalak bi delitu horiek, eta Jorge Argoteri, berriz, babesa ematearena bakarrik. Epaimahaiak dienez, Veraren kontra Roldanen deklarazioa baino ez dago, eta Roldanek Verarekiko aitortutako gorrotoak balio kentzen dio esandakoari. Epaiaren arabera, gainera, Argotek Bayori dirua eman izan balio ere, ezin da frogatu diru berezietatik zetorrenik. Argotek, epaiak delitua estaltzeko hainbat ekintza egin zituela dio, baina gaineratzen du 1995. urtea arte ekintza horiek ez zirela delitu gisa jasotzen. Beraz, ustez delitu horiek 1994. urtea baino lehenago egin zirenez, ezin zaio zigorrik ezarri.